Erref. kodea: LAF-220-192 [84]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak:

Urrestaratzu, Andoni: *Euskaldunok bat* ; *Iparraldeko erderakadak*

" EUSKALDUNOK BAT "

Laburdi'ko adiskide euskaltzale on batzuei igoŕitako gutuna :

Aguŕ ene adiskide maiteok ,

Bearbada zuen barkapena eskatzea izan beaŕ da niretzat, gutun onen asieran, eta amaiean ere, egiteko bidezkoena, bera irakurtzen zuen astia galeraziko dizuedalako. Baña pozik ikusten ditut, euskera ta Euzkadi'ren alde dagizkizuten alegiñak, eta oiei buruz nire iritzia zuei ematea, apika, egokia izan ditekelakoan nago; ta oŕela izango ezpalitz, nire gogo onaz gogoratzean, oŕengatik ere barkatuko nauzutela uste dut.

Bereziki euskerarekiko ageŕerazi nai dizuet nire iritzia, ain zuzen zuen lanetarako artu duzuten bidea ona ez deritzaidalako.

Guziok maite dugu gure izkuntza - nola ori ukatu ? - guziok nai dugu berarentzat bizi oparotsuena, ta guziok nai-izango genuke izkelgi guzietatik ororentzako BAT egitea, ots, EUSKERAREN BATASUNA lenbailen lortzea.

Ez dira beŕiak asmo ta gurari oiek. Arana Goiri sortu zanetik - eta orduan asi zan euskerarentzat bere berpiztea - asmo ta nai oiek maiz agertu dira gurean, eta bide batzuk izan dira esondatuta, ororen antsi ori betetzeko xedeaz.

Bide oien artean iru auek aipatuko dizkizuet emen: Arana Goiri ta bere eskolarena, Azkue'rena ta gaur deitzen dan »Euskera Batua»'rena.

Zaŕak geranok lenengoan asi giñan gure alegiñak egiten. Gero,bide ura utzi genuen, Azkue ta Garitaonaindia jaunak esondatu zutena jaŕaitzeko. Ongi dakizutenez, bide ori GIPUZKOERA OSOTUA deiturik izan zan, eta idazle geyenak ontzat artu zuten orduan. Nik bide ura zergatik onartu nuen esango dizuet: Eskola ori asi zanean, euskera ikasteko nire lenengo uŕatsak ematen ari nintzan, eta Arana Goiri'ren eskolan asiaŕen, eŕaz utzi nuen ura bigaŕenean sartzeko. Alde batetik, Azkue ta Garitaonaindia jaunak, bizkaitaŕak izanaŕen, batasunerako oñaŕiz bezela gipuzkoera esondatzeko, beren izkelgia, bizkaiera, alboan utzi beaŕ-izan zuten, eta egipen oŕek niretzat indaŕ aundienetakoa izan zan, bide onena bezela onartzeko; gero, batasunerako gogoaz ere, nire eliztia asmo ortaz eta bide ortan egiña duzute.

Bizkaya'ko idazle geyenak ere, bizkaiera utzi zuten gipuzkoera osotua'rena jaŕaitzeko; oŕengatik, idazle aiek, batasunaren alde, beste guziak baño geyago, nekez ganera, egin dutela nabaritu beaŕ da. Beste idazleak, ostera, Gipuzkoa, Laburdi, Naparoa ta Zubero'koak oso gutxi egin zuten, egitan ezer egin bazuten, gipuzkoera osotzeko. Ta oartu duŕanez, eztakit zergatik ez bide dan ezer artu nai bizkaieratik beste tokietan; ez ote da ori besteentzat begiko ?.

Eta bizkaiera beste izkelgi guziak baño geyago mintzatzen da, giza-lagunengan eta eskualdetan; izan ere besteak baño aberatsagoa da jakitunek bayezten dutenez; eta ba-ditu adizkera batzuk laburdierazkoak bezela. Oŕengatik gaizki deritzait gaur niri, edatuena dan izkelgia oso baztorturik uztea, batasuna egiteko.

Ene iduriko, euskeraren batasuna izkelgi guzien artean eta euskaltzale ororen artean ere egin beaŕ da, bat ere uŕuñatu gabe; ta askoz gutxiago, uŕuñatzeko, izkelgi zabalduena bada. Euskeraren aberastasuna izkelgi guzietan dago ta ez deritzait egoki aberastasun ortan ezer moztutzea.

Dana dala, bigaŕen bide ortan abiatu giñan geyenok; eta Euskaltzaindia, sortu zanetik, bide ortatik ibiĺi da ia orain arte. Baña bere beŕogetamaŕ urteak bete dituenetik, irugaŕen bidean sartu da »Euskera Batua»'renean; eta sutsuki ari da, beste guzia alboratzeko naiean.

»Euskaldunok Bat» - II.

Oŕa, beraz, irugaŕen bidea. Zer da bide ori ?. Ene ustez, euskeraren aurka egin diteken lan aundiena; gure artean soŕ liteken okeŕik sakonena; eiki, gure arerio puŕukatuenak ezin soŕerazi lezakete kaltegaŕiagorik. Alakotz, ezin, nire aldetik, iñola ere ontzat artu.

Ziuŕ egon zaitezkete, nire iritzi au erotean-perotean borobildu ez dudala; ene bizi guzia daramat euskerarenganako kexutasunez beterik, eta asko irakuŕi ta idatzi dut gure ebazkizunari buruz, iritzi ori tinkotu baño lenago. Oŕek eztu esan nai okerturik egon ezin naitekela, Ludi ontan ori iñork ere esan ezin dezakelako, Baña, alderantziz, ene iritzia moldatzeko oñaŕi, ta oñaŕi sendoa, ba-dudala, bai.

Eta oñaŕi ori nun eta nola ikusten dudan jakin-erazi nai dizuet emen. Ona:

Gurean, beste Eŕi'engan bezela, onbide ta gaizpideak izan dira beti; okeŕak ere ugari. Eta ona izango zaigu beti, guziak arpegiz-arpegi begiratzea, zera oiek edonolakoak izan. Nire ustez, gure Eŕi'aren utz edo akats aundienetakoa auxe dugu: ZABARKERIA, SORAYOKERIA; euskalduna dan bizirako ta, bereziki, euskerarenganako. Oŕ konpon !, bost ajola !, niri zer ? !, eta onelako esakunak eŕaz agertzen dira euskaldunen ezpañetan, zoritxaŕez. Ien, jakiña, etzuten ikusi gure auŕekoek euskal-bizirako euskerak duen gaŕantzia ta, norberaren beaŕakatik edo, bereala ta miñik gabe, alboan uzten zuten Eŕi'aren izkuntza, euskal-biziari eutsi dizaioken bide bakaŕa.

Ajolaz eta yoranez ibiĺi ziran gure jakitunak beste izkuntzak ongienik ikasteko alegiñetan; zergatik etzuten oŕela ere jokatu euskerari buruz ?; aŕokeriagatik ?, zabarkeriagatik ?; dana dala, aiei bost ajola euskeraren galtzea zala-ta. Beren bizibideagatik - apaizak batez ere - eŕitaŕekin mintzatzeko, euskera beaŕa zitzaienean , gure izkuntza ongi ikasi etzutelako, lasai edo artzen zituzten ikasitako beste izkuntzaetatik beaŕak zitzaizkien itzak ugari. Bide artatik eta aien eŕuz sartu ziran euskeran ainbeste erderakadak, asmoak adierazteko Eŕi'aren izkuntzak bere itzak ote zeuzkan begiratzeke, askoz gutxiago itz beŕiak eratzeko, euskal-eŕoak ote zegozten biĺatu gabe.

Eŕitaŕek, aiek irakasita, guzia ikasi ta onartzen zuten, ongi ala gaizki ote zegoen begiratu gabe; berentzat aski edo zan apaiz batek gauza bat esan, bereala ontzat artzeko; oroitzeko dugu ortaz, egoaldean »Aita Gurea»'z zer gertatu zan; oŕela irakasi ta ikasi zutelako, oŕela otoi-egin da m luzaroan egoaldean; orain ongi zuzendu da ori ta ipaŕaldean bezela dagite, »Gure Aita» esanez. Eŕi'ak beti irakasten zaionari jaŕaitzen dio, zintzoki.

Beste bideak ere egon al-izan ziran, ausaz, erderakadak orduan sartzeko; baña aipatutakoa oŕela izan zala uka ezin ditekela uste dut.

Maiz edo geyenetan, erderakada bakoitza dagoen tokitik, euskal-itz edo esakun jatoŕak alde-egin du, edo lekorera egotzita izan da. Ontzat artu beaŕ al dugu egindako ori ?, uŕuñatu beaŕ al dugu, oŕela, egotzitako itz jatoŕa? . Ez, nire ustez, iñola ere m ez, ori euskerarentzat guztiz kaltegaŕia dalako, ta bere m aberastasunean moztuta geratzen zaigulako. Egitan esan dezakegu, jokera ortaz, erderaren bidez euskeraren aurka yarduten dala. Beraz, erdera euskerarentzat guztiz kaltegaŕia da; ez berez, noski, baña bai bere erabiltzeagatik.

Ba-dakit iritzi guziak oŕelakoak ez dirala ta, batzuen ustez, erderakadaen bidez euskerak irabazi egiten du; baña ez daritzait ori ontzat aŕ ditekenik, erderakadak ainbeste ta ainbeste sartzen diranean, batik bat.

Baña ba-dago beste zerbait, esandakoa baño gaŕantziagoa dana, erdera euskeraren aurka nola erabiltzen dan argi ikusteko.

Ontan, ene ustez, bat gera guziok: España ta Frantzia'k jaŕi dizkiguten beren eskoletan ez da euskerarik aipatzen, bera uŕunatzeko ezpada bederen. Eta eskola oietan sartzen diran auŕ euskaldunak, lenengo egunetik, ez dute erdera baño besterik entzungo; ta berak erderarik jakin ez aŕen, erderaz itzegingo diete irakasleek asieratik.

"Euskaldunok bat" - III.

Oso ezaguna da jokera ori, ta oŕen aurka enaiz ni, enurarik gabe, mintzatzen dan lenengoa. Guziok dakigunez, auŕ euskaldunak bereak eta bost jasan beaŕ ditu eskolan dagoen urteetan zerbait ikasteko, erdera bera ta beste gauzak, erderaz ere, bereganatzeko. Ta eskolatik ateratzen danean erdalduna biurturik agertzen da, askotan euskerarenganako eŕa bateaz, bere neke guzien eŕuduna bere gurasoen izkuntza izan dala uste duelako; jakiña, irakasleak ere, asmo ori aiengan sartzeko, eginalak bete ondoren. Bur-muaren ikuztea da ori, ziñez.

Alakotz, ikus dezagun au garbi: erdal-eskoletan, euskaldunak sartzen diran auŕak, erdaldunak biurturik ateratzen dira; ori da eskola oietan gure Eŕi'aren aurka burutzen dan lan kaltegaŕia. Bana, bereziki, auxe nabaritu beaŕ dugu egipen ortan: lan ori egin al-izateko eskuartea ERDERA dala. Crixe erabiltzen da, berezienik, elburu ortarako beste oberik eztagoelako; izango balitz, ziuŕ egon gaitezke gogoŕ erabiŕiko luketela.

Erdal-eskoletan, beraz, euskera iltzeko bide egokiena erdera da; oŕengatik, erabiltze oŕengatik, erdera euskeraren arerio sundiena dugu. Ta eskoletan betetzen duen bere jokera ori, bere ondorio oŕezaz, jokatuko dan beste toki guzietan, eta erabiltzale edonor izan, berdin gertatuko da, ondorio berberaz beti.

Oŕengatik, gure euskeraren arerio bezela eskola aurkeztea ez da naikoa. Euskera ondatzeko bertan erabiltzen dan bidea da ongi ikusi beaŕ dana; ta bide ori, beŕiz esan beaŕ, ERDERA da. Ongi dakigunez, bide ori indaŕez eta sakon erabiltzen da eskola guzietan.

Erdera da, pipia bezela, gurean bere lan kaltegaŕia betetzen duena. Erdera sartzen diete gure auŕai eskoletan, barneraño, euskeraren tokian jaŕi arte; ta oŕela, esan dugunez, eskolan sartu ziran auŕ euskaldunak, andik auŕ erdaldunak biurturik ateratzen dira. Gero, biziaren beste maiŕetan, noski, biurtze ori gero ta gogoŕago egiten da; ta beti erderaren bidez.

Beraz, lenengoz erdera sartzen da, ta gero, barnean sartutako erdera oŕek bere lan kaltegaŕia betetzen du.

Unamuno'k ongi esan zuen bein: "Itzen bidez oldozten da". Egi aundia, oldozpen txikienak ere itzak beaŕ ditu eratzeko. Alakotz, gure aldetik, erdal-itzen bidez oldozten badugu, erdaldunak izango gera euskaldunak baño geyago, naiz eta euskera jakin.

Ortik ondorio au dagokigu ateratzea: naiz itzaren naiz izkuntzaren indaŕa, izugaŕia dala; ta oŕezaz gogoratu beaŕ dugu, gure euskeraren alde lanetan ari geran guzietan.

Ezin ukatzekoa da erderaren lan ori, ta oŕela izango da beti, noiz-nai ta edonun, naiz eta erabiltzaleak geu izan. Beraz, nola artuko dugu ontzat, erderakadak, eunka ta eunka, euskeran sartzea ?.

Ta ain zuzen, "Euskera Batua" deitzen dan okeŕ aundi ori ontzat artzen dutenek orixe dagite, itxutasunean. Ezin ulertu geron aldetik, nola izan diteken inor, bide ortatik abiatzeko ta jaŕaitzeko. Ezin ulertu, gutxiago, Euskaltzaindi'ak ere ontzat artzea. Orain 18 urte dirala, Arantzazu'n egin zuen batzaŕ batean beste bidetik ari-izan zan, aolku au ematen: "Ba-daki batzarreak zenbait kultura sailletan itzen eskas gabiltzala. Geroago, bear den garaiean, Euskaltzaindiak bere erabakiak ar ditzan, euskaldun ikasi guztieri eskatzen zaie orretarako egokiera dutenean, gai oriek, bai itzez eta bai izkribuz, euskeraz erabiltzeko, erderara jo gabe, naiz ta nekegarriago izan" ("Euskera", Euskaltzaindi'aren aldizkaria). Aolku ori ta, amabi urte geroago, tokian berean erabaki zuena, alkaŕen aurka agertzen dira, ta erakunde bera izan da biak eman eta artu dituena. Guretzat, lenengoa zentzunagoa da, 1956'gaŕenekoa, ta orixe jaŕaitu nai dugu.

Erderakadak eztagoz itzetan bakaŕik, eta len esan dizuedan "Gure Aita" otoitzari buruz egin zana, gaur, zorionez, zuzendu dana, beste bat du-

gu. Baña ba-dagoz oŕelako besteak ere, ta onekin batera emengo aldean erabiltzen diran batzuk idatzita doazkizue. Egoaldean ere ba-dagoz oŕelakoak, baña emengoak bakaŕik ematen dizkizuet, zerok obeki ikus ditzakezuten.

Izugaŕia da, aldameneko erderak eta beren kulturak, aspaldidanik, euskerari jasan-erazi dioten eragipena; txit argi dago ori ta, zalantzik gabe, gañean dauzkagun kate ta uztaŕi guzietatik, erdera da gogoŕena, lazkagaŕiena; beste guziak gorputza menperatzen digute, baña erderak gogoa da menperatzen diguna. Beste aldetik, izkuntza bakoitzari gogo bat, berarena, dagokiola ikus dezakegu, ta, alderantziz, gogo bakoitzari bere izkuntza; beraz, euskerari euskal-gogoa dagokio, ta erderari erdal-gogoa; izkuntza bakoitzak, egitan, bere gogoari eusten dio, ta eztago orixe egiteko besterik; alakotz, euskeraren bidez euskal-gogoari eutsiko diogu; ta erderaren bitartez, erdal-gogoari. Ezin ori ukatu. Oŕengatik, euskal-gogoa azke izan dedin, erderatik at bizi beaŕ dugu, gurean erdera dan guzia baztertzen.

Noski baño noskiago, ez da nire asmoa, uŕundik ere, nik esandakoa, nik esateagatik zuek ontzat artzea; ori niretzat aŕokeri izugaŕia izango litzake-ta. Gai oŕi buruz zuek zerate iritziak artu ta moldatu beaŕ dituzutenok. Ongi da besteak zer dinoten ikustea, baña norberaren iritzia, bakoitzak eratu beaŕ du, gaiari buruz asko ta asko oldoztu ta ikasi ondoren.

Ez dizuet, beraz, nire iritzia ontzat aŕ dezazutela eskatzen; baña, zaŕa naizenezkero, uste dut zuei ageŕeraztea aintzakotzat artuko didazutela, ta bide batez, gazte zeratenoi aolku bat ere ematea; ba-dirudi urteak ori egiteko bidea edo almena ematen dutela.

Besteen iritziak uŕunatu gabe, ikas itzazute gauzak zerok, eta ez artu inoiz ezer ontzat, emengo onek ala ango arek esan dutelako bakaŕik; au edo ura, zuek edo nerau, guziok okeŕ egon gaitezkelako.

Guziok nai dugu euskeraren batasuna; ortarako ta beste gauzaetarako ere, gazteak arin ibili nai dute, ta zaŕok astiro jokatzea dugu obetzat; ba-dirudi alderantziz izan beaŕ zala, gazteak, gerorako, bizi geyago daukatelako, baña, egitan, oŕela gertatzen da; gazteak beti iraduz ibiltzea nayago dute.

Nire aburuz, euskeraren batasuna, oso luze izan beaŕ dan lanaren ondorioa izango da; ta, gañera, beaŕ bezela egiteko, euskaldun guzien lanaren semea izango dugu, izatekotan. Ezíña izango zaio gizon bati, ez eta erakunde bati ere, bakaŕik, ori burutzea, naiz eta oiek yakintsuenak izan; alkaŕen laguntza, beaŕa, oso beaŕa da guziontzat.

Eta niretzat, ori lortzeko bide bat, euskal-itz guzien zentzuna, euskeraz eman, azaldu ta tinkotzea ezinbestekoa da, lenengo irakaskintzaren gaietaz asteko. Argi dago, lan ori oso luzea izan beaŕ dala, baña baitezpadakoa da nire aburuz. Ez da ajola aundirik ukan beaŕ oŕengatik; beaŕena, bide on batean barna guziok joatea da. Sortu zanean, Euskaltzaindia ori egiten asi balitz, gaur guzia egiña izango genukean, eta ororentzako euskal-iztegi aundia, osoa, izango genuke, eztabaidetan ez ibiltzeko. Ori egin dute ebertaŕek, beren izkuntza zaŕaren eŕoz itz beŕi geyenak eratzean, eta ondorioa edeŕena izan da berentzat. Eredu bikaña oŕ guretzat !. Beste aldetik, orain ogeiren bat urte, Unesko'n alkartu ziran jakintsu batzuek, gurea bezela dagozen izkuntzaentzat, bide ori bera aolkatu zuten, beren biziari eutsi al-izateko.

Tinkotze ori ta, bide batez, gure iztegi aundia (guzia, itzak eta azalpenak) oro euskeraz egiteko, 1.956'gaŕenean Euskaltzaindi'ak eman zuen aolkua ontzat artu beaŕ-izango litzake, ots, gai ta al ditezken itz guzietarako euskera oñaŕiz artzea; bide guzietatik erdera ain kaltegaŕia izan zaigula beti gogoratzean; era berean, al ditezken erderakada geyenak alboratzeko, ta oien ordez euskerazko itz eta esakunak sartzeko. Ta ez ukan kexutasunik lan ori lenago ala beranduago egiña izango ote danagatik.

Lan ortan, nai-izango luketen euskaltzale guziak sartu beaŕ-izango

lirake, ta euskal-kulturazko erakunde guziek antola ta zuzentzeko. Lan eta iritzi guziak agiri-agirian emateko, ta erabakiak euskaltzaleen arteko autarkién bidez artzeko.

Naiz gizon naiz erakunde, inor ez da nor, bakafík, arazo ontan erabakitzeko; eziña da ori. Ikus ezazute gaur Euskaltzaindi'az zer gertatzen dan: asko ta asko gera gaurko bere jokera ontzat artzen eztugunok; berak bezela uste ez dutenenganako ezespenez beterik, bere »legeak» ematen ari da, bere iritzia indarez sartu naiean, eta bere isigogortasunean kalte aundia bano besterik ez du egiten. Oso ertsita agertzen dira gaurko euskaltzain batzuk beren iritzietan; eta mota guziko ertsidurak beti kaltegarí. Giro oso txará soferazi dute Euskaltzaindi'an bertan, eta, orengatik, euskaltzain batzuk oiturazko bilereetan ez dira agertzen. Nora joan gaitezke oso puzkaturik dagoen Euskaltzaindi orekin ?.

Ganera, ene ustez, Euskaltzaindi'an jokera txarí ori daramatenak dira gaur gertatzen zaigunaren erudun; berai, len, zabal-zabalik ideki zizkieten ateak, eta orain berak itxita dauzkate besteentzat. Eta oien artean adiskide onak ditut; ezin ala ere eurekin bat egin ortaz, eta ez da txikia beren jokerak ematen didan atsekabea.

Arazo ontaz luzaroan egon nindeke idazten, bana esandakoaz aski dala uste dut; eta beriro zuei barkatu ! esaten agerérazi beaí dut nire burua.

Eta zuen iritzi ta jokera, azkenez, edozein izan, adiskide izango nauzute beti. Gogo ortaz, onaí ezaidazute, otoi, nire besarkada bero-beroa

Urestarazu'tar Andoni

IPAŔALDEKO ERDERAKADAK

Erderakadak	Nundik artuta	Euskal-itz jatoŕak
»Hunen bitartez, hunekin eta hunetan"		»Hunen bitartez, hunekin eta hunengan"

Au, ziñez, ez da erderakada, euskal-itz bat gaizki erabiĺia baizik. Ongi dakizutenez, euskeraz egiten dugun izen-jokua (deklinazioa) berezia da, ta atzizki batzuen bidez, ongi bereizten ditugu izaki zentzungabeak zentzundunengandik. Esate baterako: (edonun esaten danez) Etxean, etxe hunetan (izaki zentzungabekoaz); baña Gizonagan, gizon hunengan (izaki zentzundunaz).

Esandako itzak Mezatan esaten dira »Gure Aita» eŕan auŕetik; eta naiz Meza-emaiĺeak naiz Meza entzuleok, siñisten dugulako, ba-dakigu oparian, sagaratzea egin baño lenago, »ogia" dagoela, baña bein sagaratu ezkero, an ogirik eztagoela, Jesukristo bera baño. Beraz, itz oiek esaten diranean, eztago an zerik, an dagoena nor da, zentzunduna, ta oŕengatik »hunengan" esan beaŕ-izango litzake. Hunetan esatean, ura zentzungabekoa bezela artzen da, ta ori ez datoŕ ongi siñismenari buruz. Egoaldean ba-dakit ongi esaten dala.

Atondu duten Liturjia beŕian, »Gure Aita" otoitzean beste iru gauza dagoz, ene ustez, egokiak eztiranak. Oiei buruz, lan ortan ari-izan dan Batzorde'aren lendakari jaunari nire iritzia ageŕerazi diot. Alaz ere, otoi oŕen era beŕian, gauza on bat egin dute: Mendeetan barna, egoaldean, »Aita gurea" esan dute bazteŕ guzietan, euskeraren joskeraren aurka utz aundi bat egiten; eta orain, ori zentzunez zuzendu da, ipaŕaldean bezela, »Gure Aita" jartzen.

Parantzeraz egindako era beŕian ere, »Notre Père" otoitzean, ba-dago, ene iritziz, ongi esana eztan beste gauza bat; eta lengo eraz erabiltzen zana, askoz egokia zala deritzait.

Guzi ortatik auxe atera dezakegu: Alde ta toki guzietan, ortaz bederen, eŕiak, irakasten diotena jaŕaitzen du, zintzo ta men-men egiñez, dinoena ongi ala gaizki ote dagoen begiratu gabe. Ongi irakasten badiote, ongi eŕanen du, ta, orobat, gaizki irakasten badiote, gaizki ere esango du esatekoa. Oŕengatik, ezin onaŕ dezakegu lege bat bezela eŕiak esaten eta erabiltzen duen guzia, batzuen batzuek nai duten bezela.

- -

Egin dezagun otoi Eliza'rentzat	Parantzeratik	Egin dezagun otoi Eliza'ren alde
Egizu otoi gu pekatorosentzat	id.	Egizu otoi gu pekatorosen alde

Au bai, au erderakada da, parantzerazko »pour" itzaren zentzun bateaz egiña. Nik baño obeto dakizutenez, »pour" itz ori bi zentzun auetan erabiltzen da: Bat, »causal", esate baterako: »Je m'ai battu pour la patrie", ots, »à cause de la patrie" edo ~~»aberiaren-alde»~~ »en faveur de la patrie"; ta bestea, »destinatif", esate baterako: »J'ai acheté ce livre pour toi", ots, »pour te/le donner".

Lenengoa, euskeraz, »-gatik" atzizkiaz egiten dugu: »Nik guda egin dut aberiagatik" edo »aberiaren alde"; eta bigaŕena, »-ntzat" atzizkiaz: Nik liburu au erosi dut zuretzat (zurentzat)". Eta bigaŕen atzizki oŕek zentzun ori dauka bakaŕik eta ezin erabil diteke besteaz.

Ba-dakit Lhande iztegian, beste zentzun bat aipatzen dala; »1º suff. verb.: »pour que, afin que". »Ikhus dezantzat, pour qu'il voie". Beste batzuek ere zentzun ortarako erabiĺi dute oŕela, ta, gaizki gogoratzen ezpadut, Aranà Goiri'k ere; baña nire ustez ori eztago ongi; ta esandako adizkera ortan »Ikus dezan" bakaŕik jaŕi ezkero, aski da »pour qu'il voie" zentzuna adierazteko.

- -

Ipaŕaldeko erderakadak - II.

"Zertako" Parantzeratik Zergatik

Au ere beste erderakada bat da, aurekoaren antzekoa. "Zertako", nire ustez, "Zertarako"'ren laburpena da, ta bere zentzun berezia "-NTZAT" bezelakoa da, baña zentzungabeko izakiai buruz erabiltzeko.

Lhande'ren iztegian onela irakuŕ diteke: "ZERENDAKO N. (H.) pourquoi ?, pour quel motif ?, pour quel usage ?. SYN.: ZERTAKO, ZERGATIK, ZERENTZAT" - "ZERTARAKO C. (A.) à quoi bon ?"

Ene iduriko, ZERTAKO ta ZERGATIK ez dira berdin, oietan bi zentzun bereziak dagozelako.

- - - - - - - - - - - - - - - - - -

"Berbo dibinoa" (Angelus) Españeratik (Verbo divino) Jainkoa'ren Itza

- - - - - - - - - - - - - - - - - -

"Bana geldituz birjiña" (Angelus) Bana geratuz birjiña

Au ere ez da erderakada; bana, ene ustez, oŕ, "gelditu" aditzaren ordez, "geratu" erabiĺi beaŕ-izango litzake. Nire iduriko, "geratu"'ren zentzuna parantzerazko "rester" bezelakoa da; ta "gelditu"'rena, parantzerazko "arrêter" bezelakoa. Ba-dakit bi aditz oiek nastuta erabiltzen direla, bana uste dut ona izango litzakela zentzun oietarako bi itz oiek ondo bereiztu ta tinkotzea.

- - - - - - - - - - - - - - - - - -

"Zer poztasuna !" Parantzera edo españeratik Au poztasuna !, edo
Quel contentement !, edo Ori " !, edo
Qué contento ! Ura " !

- - - - - - - - - - - - - - - - - -

"Oŕoitu, gaŕaitu, eŕotu, ..." Oroitu, garaitu, erotu, ...

Itz auetan egiten dan "ŕ" gogoŕ oŕena ezta erderakada; bana zergatik gogortu da, bigun izan beaŕ dan "r" ori ?. Onengatik, nire ustez :

Itz oiek onela ere idatzita izan dira: Orhoitu, garhaitu, erhotu, ...; ta "h" ori "r"'ren bigaŕen soñu gogoŕa adierazteko izan da oŕ, beste itz batzuetan bezela; bearbada asieran etzan sartu "h" ori ortarako, ez eta Or-hoitu, gar-haitu, er-hotu, ..., "h" oŕen sasi-soñua emateko ere. Zertarako sartu zan, bada ?; zaĺa da niretzat erantzutea. Sartu ote zan, esate baterako, "urhats" itza bezela idazteko ?. Itz onen "r" ori, bai, soñu gogoŕekoa da, ta onela idatzi dezakegu argiago: "uŕats". Ongi gogoratzen dut, bein "Herria"'n emandako idazlan batean bi era auetan agertzen zala itz ori: "urrats" eta "urhats"; eta bein ere, Paris'eko eliza batean euskal-apaiz jaun bati "ur-hats" entzun geniola, "h" ori oguzirik. Lhande'ren iztegian "h" beti oguzi beaŕ dala esaten da, ta bertan oŕela ikasita edo, oŕ ikus dezakegu zergatik oguzten dan batzuetan "h" ori. Ene iritziz, esandako itzak eta oŕelako beste batzuk ere, "r" bigunaz oguzi ta idatzi beaŕ dira; oŕela, ortan batasuna egiña izango genuke. Beste aldetik, ene aburuz, pizkanaka-pizkanaka, "H" guziak kendu beaŕ-izango genuke, euskera eŕazagoa egiteko; eŕaz egin liteke ori, ta oso egoki ta onuratsua izango litzake, izkuntzarentzat eta batasunerako.

- - - - - - - - - - - - - - - - - -

Orain, ipaŕaldean erabiltzen diran erderakada batzuk (itzak) ipiniko ditut, geyenak "Herria" ta "Otoizlari"'tik artuta; nungo erderatik artuta dagozen (okerturik ezpanago), eta oien ordez erabil ditezken euskal-itz jatoŕak, naiz eta auen artean, gutxienak, itz beŕi batzuk agertu. Beste asko atera litezke oindino, bana aski dira, euskeran erdera nola sartu dan ikusteko. Ta gauza nabaria ere agertzen da oŕ: itz geyen oiek "españeratik" artuta bide dagoz, ez "parantzeratik"; zergatik ori ? :

Ipaŕaldeko erderakadak - III.

"Abendoa"	Parantzeratik ?	(avent)	Lotazil (Laburdi'ko itza)
"Abuztua"	Españeratik	(agosto)	Dagonil
"Adreza"	Parantzeratik	(adresse)	Zuzenbidea
"Airos"	Españeratik	(airoso)	Zalui, lirain, txairo
"Alegera"	"	(alegre)	Alai, alaitsu, aŕai (Laburdi'n)
"Altxatu"	"	(alzar)	Jaso, goratu, upatu
"Aparte"	"	(aparte)	Berezi, bazterki
"Apiriĺa"	Parantzeratik ?	(avril)	Joŕaiĺa
	Españeratik ?	(abril)	
"Aŕaza"	"	(raza)	Enda, abenda (itz beŕia ?)
"Aŕazoinamendu"	" ?	(razonamiento)	Gogaketa, bururakizun
	(Lhande izt.: "(rom.arrasoua)"		
"Atrebitua"	Españeratik	(atrevido)	Ausart (Lhande'ren izt.: "Cf. rom. ausar"), a-
	(Lhande izt. "(Cf. esp. atreverse)"		zaŕi, bipil
"Bakantza"	Parantzeratik	(vacance)	Opoŕaldia, oportaroa
"Balios"	Españeratik	(valioso)	Aldiñeko, jasoko
"Bandera"	"	(bandera)	Ikuŕin (itz beŕia, ongi egina)
"Benedikatu"	"	(bendecir)	Onetsi
"Bertutea"	Parantzeratik	(vertu)	Onbidea
	(Lhande: "(Du latin virtute)"		
"Besta", "pesta"	Españeratik	(fiesta)	Jai
"Bestitu"	"	(vestir)	Jantzi
"Bistan da"	" (está a la vista)		Agirian dago Agiri-agirian dago Begien aurean dago
"Bixta"	"	(vista)	Ikusmena, ikuspidea
"Bulego"	Parantzeratik	(bureau)	Landola, idazkola
"Debaldetan"	Españeratik	(en balde)	Alpeŕik
"Denbora"	"	(tiempo)	Aldi, eguraldi
"Deputatu"	"	(diputado)	Aldun
"Doblatu"	"	(doblar)	Bikundu, tolestu, malgutu
"Dolu"	" ? (dolor)	(duelo)	Minduru (duelo)
	Lateratik ?	(dolere)	Atsekabe (dolor, pena)
			Min, oñaze (" , ")
"Dorpea"	Españeratik	(torpe)	Baldaŕ, aztun, kankail
"Dretxoa"	"	(derecho)	Eskubidea

Ipaŕaldeko erderakadak - IV.

"Duda"	Espaňeratik	(duda)	Zalantza, ezpai, enura
"Emendatu"	" ?	(enmendar)	Geitu (augmenter) Ongitu, oneratu (amender, se corriger)
"Entseia" "entseiatu"	"	(ensayo, ensayar)	Ekinaldi, ekin, len ikusi
"Eŕebeskeri"	"	(revés)	Baldartasun, baldarkeri
"Eŕebista"	"	(revista)	Aldizkaria
"Eŕege"	"	(rey)	Bakaldun (itz beŕia ?)
"Eŕegela"	Parantzeratik	(règle)	Arau, zuzenkai
"Eŕepika"	Espaňeratik	(repicar)	Joaleka (joalez), leloa
"Eŕespetatu"	"	(respetar)	Lotsa-izan, itzal-izan, larderia-izan
"Eŕetora"	Lateratik ?	(rectorem)	Apaiz-buru
"Eŕetreta"	Parantzeratik	(retraite)	Zaŕ-saria
"Eskaňdala"	Espaňeratik	(escándalo)	Gaizpidea, galbidea; aŕabotsa, zalaparta
"Eskapatu"	"	(escapar)	Itzuri, iges-egin
"Eskas"	"	(escaso)	Uŕi
"Esklabo"	"	(esclavo)	Yopu
"Eskolemaile"	" erdia	(escuela)	Irakasle
"Espantagaŕia" ("espantu")	" erdia	(espanto)	Aŕigaŕi, izigaŕi, ikaragaŕi
"Espantu"	"	(espanto)	Ikara, laboŕi
"Esperantza"	"	(esperanza)	Itxaro, itxaropena
"Estatu"	"	(estado)	Egoera, bizi-bide, itxura
"Etsenplua"	" ?	(ejemplo)	Adibidea, ikaspidea
"Fagorea"	Parantzeratik? Espaňeratik (Lhande: "lat. favorem")	(exemple) (favor)	Urgazpen, sorospen, eskeŕ
"Falta"	Espaňeratik	(Falta)	Utz, ogen (peché), akats
"Fama"	"	(fama)	Omena, aomena
"Fedea"	"	(fé)	Sinismena
"Finala"	"	(final)	Amaya, azkena
"Finkatu"	"	(fincar, hincar)	Tinkotu
"Fraide"	"	(fraile)	Lekaide (itz beŕia)
"Frango, franko"	"	(franco)	Asko, anitz, ainitz, oparotsu
"Froga"	"	(prueba)	Argibide, agerbide
"Fruitua"	" ?	(fruto)	Arnari, emaitza, zitu
	Parantzeratik ?	(fruit)	
"Gerla"	" ?	(guerre)	Guda
	Espaňeratik ?	(guerra)	

»Gende»	Españeratik	(gente)	Czte, lagun-ozte, gizatalde
»Gidari»	»	(guía)	Erakuslea, aitzindaria
»Girixtino»	»	(cristiano)	Kistaŕa, kistotaŕa
»Gloria» (latera ?)	»	(gloria)	Aintza
»Gostatu»	»	(costar)	Jasoko-izan
»Grado»	»	(grado)	Mail, ozka, kozka
»Grazia»	»	(gracia)	Eskeŕ
»Greba»	Parantzeratik	(grève)	Cpoŕaldia, lan-uzte
»Guarda»	Españeratik	(guarda)	Begirale, zaintzale
»Gustagaŕia»	» erdia	(gustoso)	Gozagaŕia, atsegingaŕia
»Ideia»	»	(idea)	Asmoa, burutapena
»Iŕisku»	»	(riesgo)	Galtzori, gaitzuŕe
»Iskiriatu»	»	(escribir)	Idatzi (itz beŕi edeŕa)
»Ispiritu»	»	(espíritu)	Gogo
»Ixtorio»	»	(historia)	Ipuin
»Ixtudiatu»	»	(estudiar)	Ikasi, aditaldu (itz beŕia ?)
»Jestu»	»	(gesto)	Ayeru
»Jujatu»	Parantzeratik	(juger)	Epaitu
»Kanpo»	Españeratik	(campo)	Lekore, landa, at
»Kantu, kantatu»	» (canto)	(cantar)	Abesti, abestu
»Karitatea»	»	(caridad)	Goimaitasuna
»Kaŕo»	»	(carro)	Gurdi, orga
»Kasik»	»	(casi)	Ia, -tsu
»Kasu»	»	(caso)	Adi !, ernai !, zain !
»Katixima»	(Ihande: »(lat. casum)» Españeratik ? Parantzeratik?	(catecismo) (catéchisme)	Kristau-ikasbidea
»Kofesio»	» ? Españeratik ?	(confession) (confesión)	Aitortza
»Kolore»	»	(color)	Margo
»Kolpatu»	»	(golpear)	Jokatu, ebaindu
»Komedia»	»	(comedia)	Antzerki (itz beŕia; Euskaltzaindi'ak ontzat artua)
»Komentu»	»	(convento)	Lekaidetxe, lekaimetxe, lekaretxe (itz beŕiak ?)
»Komunione»	» ? Parantzeratik?	(comunión) (communion)	Jaunartze

Ipaŕaldeko erderakadak - VI.

»Kondatu»	Espaneratik	(contar)	Zenbatu, bat-banatu
»Konferantza»	Parantzeratik	(conférence)	Itzaldia, mintzaldia
»Konprenitu»	Espaneratik	(comprender)	Ulertu
»Kontra»	»	(contra)	Aurka, auŕez, kaltez, aitzi
»Kontseiĺu»	Parantzeratik	(conseil)	Aolku, onu
»Kontsekratu»	Espaneratik ? Parantzeratik?	(consagrar) (consacrer)	Oteundu (itz beŕia ?)
»Korala»	Espaneratik	(coral)	Abesbatza, abestalde
»Kultura»	»	(cultura)	Gogo-lantze (itz beŕia ?)
»Kuraia»	Parantzeratik	(courage)	Kemena, adorea
»Kurtsoa»	» ?	(cours)	Ikastaroa, ikastaldia
	Espaneratik ?	(curso)	
»Libertitu»	»	(divertir)	Jostatu
»Libro»	» ?	(libre)	Azke, bereber
	Parantzeratik?	(libre)	
»Liferentzia»	Espaneratik	(diferencia)	Bereiztasuna, aldea, artea
»Literatura»	»	(literatura)	Elerti (itz beŕia, ongi egina)
»Manatu»	»	(mandar)	Agindu
»Martxoa»	»	(marzo)	Epail
»Marzanta»	Parantzeratik	(marchand)	Saleroale
»Mayatza»	Espaneratik	(mayo)	Oŕil, lorail
»Mediku»	»	(médico)	Sendagiĺe, osagiĺe
»Mentura, menturaz»	»	(ventura) (por ventura)	Bearbada, apika, ausaz
»Merkatu»	»	(mercado)	Zei, sal-toki
»Moda»	»	(moda)	Oidura, azkuntza
»Molde, moldatu»	»	(molde, moldear)	Arau, era; eratu, eraratu
»Mundu»	»	(mundo)	Ludi, izadi, gizadi
»Muntatu»	»	(montar)	Antolatu, atondu, lotu
»Mereximendu»	»	(merecimiento)	Irabaztea, sarigai
»Ofiziale»	»	(oficial)	Mutil nagusia, aginbidezko
»Parte hartu»	»	(tomar parte)	Kide izan, arte izan, artukizuna izan
»Partida»	»	(partida)	Jokaldia
»Partikularzki»	»	(particularmente)	Batez ere, batik bat
»Paŕean»	»	(a la par)	Batera, buruz-buru
»Paŕopia»	»	(parroquia) (Lhande: »Bearn. parropi»)	Eliza nagusia
»Pasatu	Espaneratik	(pasar)	Igaro, igaran

"Pekatu"	Españeratik	(pecado)	Ogen
"Pentsatu"	"	(pensar)	Oldoztu, gogoan izan
"Pentsone"	" ?	(pensión)	Ikastaria, zartaria
	Parantzeratik ?	(pension)	
"Pezeta"	Españeratik	(peseta)	Laurleko (lau erealeko = de 4 reales)
"Pizu"	"	(peso)	Azta
"Plaza"	"	(plaza)	Emparantza
"Pobrea, pobrezia"	"	(pobre, pobreza)	Txiro, lander; txirotasuna, landertasuna
"Poliza	Parantzeratik	(police)	Ertzain, ertzaña, uri-zain
"Populu"	Lateratik	(populus)	Eri
"Potikario"	Españeratik	(boticario)	Sendakaigilea, osakailaria
"Prest"	"	(presto)	Gertu (Ihande: "lat. certum"), erne, ernai
"Prestatua"	"	(prestado)	Mailegatua (maileguz eman) (" artu)
"Presuna"	"	(persona)	Notin, gizaki
"Primadera"	"	(primavera)	Udaberi, udaste, bedats
"Protesta"	"	(protesta)	Ostetasun, ostera
"Pundu, pondu"	" (zentzunik asko duen itza)	(punto)	Tilet, kulatz (.) (itz beria ?) Josketa (josi'tik) Auzi, arlo, gai
"Punitu"	Parantzeratik	(punir)	Zigortu, astindu
"Punta"	Españeratik	(punta)	Mutur, mustur
"Radioa"	" ?	(radio)	Iratia (itz beria)
	Parantzeratik ?	(radio)	
"Saindu"	Españeratik	(santo)	Done, guren
"Sakristia"	" ?	(sacristía)	Eliztola, eliz-gela
	Parantzeratik ?	(sacristie)	
"Salbaia"	Españeratik	(salvaje)	Basati
"Salbatu, salbatzailea"	"	(salvar, salvador)	Gaizkatu, onik atera; gaizkatzailea
"Salbu"	"	(salvo)	Lekat, landa, landara
"Saltsero"	"	(salsero)	Naaskari, naaskatzaile, bazter-nasle
"Sano"	"	(sano)	Zindo; osasuntsu, osasundun
"Santifikatu"	"	(santificar)	Donetu, gurendu
"Segeretu"	"	(secreto)	Aopeko, izkutu
"Segetario"	"	(secretario)	Idazkari, zadorlari
"Segi, segida, segitu"	"	(seguir)	Jarai, jaraitzea
"Segur"	"	(seguro)	Eskier

"Sendimendu"	Españeratik	(sentimiento)	Biozkada, biozmin
"Serora"	Parantzeratik	(soeur)	Lekaime (itz beŕia)
"Sistema"	Españeratik	(sistema)	Eraketa
"Sujeta"	"	(sujeto)	Gai
"Taula"	"	(tabla)	Ol
"Teatro"	"	(teatro)	Antzoki (itz beŕia, Euskaltzaindi"ak ontzat artua)
"Tenore"	"	(tenor)	Ordu, oren
"Tratularia" ("tratu")	"	(trato)	Erabiltzale, sal-erostun
"Tribunal"	"	(tribunal)	Auzitegia, epaitegia
"Trufatu"	Ihande: "(rom. trufa)"		Isekatu, nausa-egin
"Urgulu"	Españeratik	(orgullo)	Aŕokeri, andikeri, antuste
"Usaia"	Parantzeratik	(usage)	Oitura, ekandu, erabilketa
"Xarmanta"	"	(charmant)	Zoragaŕia, zorarazlea
"Zerbitzu"	" ?	(service)	Moŕointza
	Españeratik ?	(servicio)	
"Zigante"	"	(gigante)	Eŕaldoi, zentoi

- -

"-KIN" atzizkia = Avec (parantzeraz) = Con (españeraz)

Ene iduriko, alde guzietan, naiz ipaŕaldean naiz egoaldean, gaizki erabiltzen da atzizki au; bearbada, "avec" edo "con" bi itz oien zentzunak adierazteko xedeaz.

"-KIN" atzizkiaren zentzun berezia, "laguntza" edo "batzekoa" da, baña ez "bide"'zkoa. Esate baterako :

Nire aitarekin joan naiz; onekin etoŕi naiz; alkaŕekin gaude.

Baña au ezin esan diteke: Makiŕarekin jo dut txakuŕa. Zentzun ori "Z" beste atzizkiaz adierazi beaŕ dugu: Makiŕaz jo dut txakuŕa.

Lhande'k onela diño: "1º suff. unitif. Enekin, avec moi; - 2º indique le moyen, Makhilarekin jo du, il l'a frappé de son bâton; - 3º marque une circonstance de temps. Jitearekin, en venant. Igandearekin, en dimanche ...".

Nire ustez, bigaŕen eta irugaŕen zentzun oiek adierazteko, "-kin" atzizkia erabiltzea okeŕa da.

= =

FSC
MIXTO
FSC® C001636